BIZIPOZA

2019 URTEKO MEMORIA

REGISTRO FORAL DE SERVICIOS SOCIALES DE GIPUZKOA

1. HITZAURREA

Jarraian aurkezten dugun txosten honek, "Registro foral de servicios sociales de Gipuzkoa" Bizipoza Elkarteak 2019 urtean aurrera eramandako ekimenen berri ematea du helburu. Egitasmo hauek aurrera eramatea, zuen laguntzak, elkarlanak ere egin du posible, guztion arteko elkarlan honen ondorio da Bizipoza aurrera eramaten ari den ibilbidea. **Guzti honegatik beraz, mila esker bihotz-bihotzez, Bizipoza elkartearen izenean.**

Txosten hau ondorengo atalez osatzen da:

- **Bizipozaren funtzioa: Izaera, misioa eta bisioa**
- **Bizipozaren helburu nagusiak**
- **Bizipozako elkarteak, bazkideak, babesleak eta boluntario sarea.**
- **Bizipozaren egitasmo ildoak eta 2019 urtean aurrera eramandako ekimenak**

BIZIPOZAREN FUNTZIOA: IZAERA, MISIOA ETA BISIOA

- Bizipoza irabazi asmorik gabeko **gizartegintza egitasmoa** da: izaera bereziko gaiak lantzen dituzten eta haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede eta elkarte , haur eta familia hauek trasmititzen dituzten baloreak jasoaz aberastu, hezi eta gizarteratzea.

- Bizipoza-k **bizipoza** du misio: hainbat zailtasun bizi dituzten familiekin eta elkarteekin batera poza partekatzea, euskaraz eta sorkuntzatik. Elkarte guzti hauek trasmititzen dituzten baloreak gizarteratzea da bizipozaren misioa.

- Bizipoza-k **auzolana** du bisio: deneriko herritar, talde eta erakundeek osaturiko bolondres-sarea osatzea gizartegintzaren poza bizitzeko.

Euskaraz elkartasuna sustatu nahi dugu auzolanaren bidez bizipoza nagusitu dadin.

BIZIPOZAREN HELBURU NAGUSIAK

- Izaera bereziko gaiak azalaraztea ume zein heldu euskararen bidez sentsibilizatuz.

- Errealitate horiek lantzen dituzten elkarteei laguntza afektiboa ez ezik, eguneroko lanerako dituzten premiei erantzuteko baliabide funtzionalak lortzeko laguntza eskaintzea.

- Gizartegintzan euskaraz eta bizipozez jardun nahi duten herritarrei auzolan egitasmo eraginkorra eskaintzea, boluntario sare bat osatuaz.

BIZIPOZA-KO ELKARTEAK, BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK.

Ondokoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako ELKARTEAK:

Bizipozako elkarteak gaur-gaurkoz 35 dira, guztiak izaera bereziko gaiak lantzen dituzten elkarteak, haurren eta familien ongizatea helburu duten elkarteak. Elkarteak Bizipoza-ren balore transmisoreak dira, Bizipoza eta bertako kideak baloreetan aberastu eta hezten dituztenak.

Elkarte anitzak Bizipozako partaide izateak elkarteen arteko ezagutza eta elkar laguntza ere bultzatzen du, elkarlanak ematen duen indarrak elkarteen lana eta ezaugarri bereziak gizartera ezagutarazteko baliatuz.

Ondokoak dira, gaur gaurkoz, Bizipoza-ko kide diren 34 elkarteak:

1.- ADEMGI: Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkartea

2.- AFESTA:Euskadiko Tourette Sindromearen eta bestelako osasun-arazoen familien Elkartea

3.- AGIPASE: Gipuzkoako guraso bananduen elkartea.

4.- AMPGYL: Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkartea.

5.- ARNASA: Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkartea

6.- ASPANIF guraso elkartea, euren umeak erbi ezpaindun edo ahosabai hautsiekin jaioak izaki eta, batibat, Euskal Herrian jarduten duena.

7.- ASPANOGI: Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartea.

8.- BANAIZ BAGARA: Euskal Herrian bizi diren etorkinekin euskara ikasteko moduak eskaintzen ditu.

9.- BEROA: Gipuzkoako harrera familien elkartea.

10.- BIHOTZEZ: Kardiopatiadun haurren familien Elkartea.

11.- BIAK BAT: Elbarritasun bat duten lagunei eta gizartean bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten ditu.

12.- CHERNOBILEN LAGUNAK: Ukraniako Doviria gizarte etxearekin lan egiten du Gipuzkoako elkarteak.

13.- NAIZEN : Naizen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako adintxikiko transexualen familiak osatzen duten elkartea da.

14.- DRAVET : Dravet Sindromea dutenen Fundazioa.

15.- ETIOPIA UTOPIA: Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean, garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematea duena.

16.- FSDPV: Euskadin down sindromea duten familien elkartea.

17.- GEHITU: LGTBI kolektiboaren berdintasun sozialaren alde lan egiten dute.

18.- GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA: Kirol egokituaren sustapena eta antolaketa Gipuzkoan.

19.- OPORRAK BAKEAN : Sahara herriaren alde lan egiten duen elkartea.

20.- GURE NAHIA: Gipuzkoako Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkartea.

21.- GURE SEÑEAK: Bizkaiko Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien Elkartea.

22.- HIRU HAMABI: Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familien elkartea

23.- JUNEREN HEGOAK: Beharra duten beste haurrei laguntzeko sortutako elkartea.

24.- KALE DOR KAYIKO: Ijito Kultur Elkartea.

25.- PAUSOKA ELKARTEA: Beharrizan bereziak dituzten haurren gurasoak.

26.- SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA: ahalmen urriko haurren eskolatzea sustatzen du ikastoletan.

27.- UME ALAIA: Adopzio Familien Elkartea.

28.- ULERTUZ: Bizkaiko Lurraldean entzumen urritasuna duten neska-mutilei eta gazteei eta horien familiei laguntza zuzena sustatzen eta eskaintzen duen elkartea.

29.- ASPANOVAS : ASPANOVAS Bizkaia, Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartea.

30.- SANFILIPPO UMEEN EUSKAL ELKARTEA : Euskadiko Sanfilippo haurren senide eta lagunok osatzen dugu. Gure helburua haurren eta familien bizi baldintzak hobetzea eta bidean aurkitzen dituzten zailtasunak gainditzen laguntzea da.

31.- MINDARA ELKARTEA: MINDARAk jardun eremua Oarsoaldea eskualdean du (dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako elkartea). Elkarteak sortze-helburu du aniztasun funtzionala duten pertsonen autonomia sustatzea, gizarte, gorputz, kirol eta jarduera osasungarrien bidez.

32.- SUPER HACHE ELKARTEA : Gaitz larria edo onkologikoa duten umeentzako eta ikerkuntzarako laguntza elkartea.

33.- GUZTIOK: Beharrizan bereziak dituzten Bortzirietako haurren gurasoak.

34.- NDANK-NDANK: Elkarte mistoa da, pertsona senegaldar eta euskaldunez osatuta. Helburu bikoitzarekin sortu zen elkartea, kulturartekotasuna sustatzeko batetik, eta bestetik,

Senegalen garapenerako lankidetza bultzatzeko.

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako BAZKIDEAK:

Elkarteko kide dira, urtean kuota bat ordaintzen dute oinarrizko beharrei erantzuteko, eta haien esku dago, gainerakoak entzunda, elkartearen egiturak antolatu eta osatzea, eta urteko egitasmoa eta diru kontuak onartzea.

Bazkide izateko aukera dute Bizipozarekin kolaboratzen duten elkarteek eta edozein eratako gizarte eragileek. Betebeharren artean urtean 1000 euroko ekarpena egitea dute. Urteko kuotarekin batera, aukeran dute bestelako ekarpena ekonomikoak egiteko aukera.

- Bizipozako elkarteen kasuan, zailtasun sozialak dituzten familiek eta gizarte-desabantaila egoeran dauden haurrei eta familiei laguntzeko elkarteek, hau da, izaera bereziko elkarteek hala nahi duten guztiak bazkide izango dira , eta urteko kuota bakoitzaren ahalmenaren arabera erabakiko da, gutxienez 200 eurokoa izanik.

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz bazkide:

- Irrien Lagunak
- Katxiporreta
- Elkar
- Hik Hasi
- Ikastolen Elkartea
- AEK
- HUHEZI unibertsitatea
- Algaraklown
- Naizen elkartea.
- Aspanif elkartea
- Dravet elkartea
- Euskal Herriko Down Sindrome Federazioa
- Gehitu elkartea
- Gure Señeak elkartea
- Kale Dor Kayiko elkartea
- Pausoka elkartea
- Bihotzez elkartea
- Aspanovas elkartea
- Gipuzkoako kirol egokituaren federazioa
- Aspanogi elkartea.
- Super Hache elkartea
- ndank ndank

- **<u>Ondorengoak zarete gaur-gaurkoz Bizipozako BABESLEAK</u>**

Bakoitzaren neurriko ekarpen ekonomikoa egiten diote proiektu osoari edo Bizipozarekin batera proiektu zehatz bat elkarlanean aurrera eramaten duten eragileak edo norbanakoak.

Norbanako babesleekin batera, ondorengoak dira gaur egun Bizipoza elkartearen babesle eragileak:

- Danobatgroup
- Orona
- Irizar
- Fagor
- Laboral Kutxa
- BBK Fundazioa
- Kutxa Fundazioa
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Maier
- Eusko Jaurlaritza
- Mondragon Lingua
- Ekonomisten euskal elkargoa
- LKS
- Ekin
- Kukai Dantza Taldea
- Athletic Club Fundazioa
- Real Sociedad Fundazioa

Eta hauekin batera ere, badaude norbanako babesleak ere, bakoitzak aportazio ekonomikoa egiten diona elkarteari.

- **Boluntarioak**

Norbanako boluntarioek, bere denbora eskainiz -Bizipoza jaian edo bestelako ekitaldietan lan bat eginez, elkarteen ekintzetan denbora eskainiz-, edota bestelako edozer emanez -ikastaro bat eman, emanaldi bat artisten kasuan, eta abar- hartzen dute parte elkartean.

Boluntario izateko aukera dute: norbanakoek.

BIZIPOZAREN EGITASMO ILDOAK ETA 2019 URTEAN AURRERA ERAMANDAKO EKIMENAK

Bizipozaren egitasmoak kontuan hartzen dituen egitasmo edo egitekoak:

1.-ELKARTEEN ETA HAIEK LANTZEN DUTEN ERREALITATEA GIZARTERATZERA BEGIRAKOAK:

- ***Irria aldizkariarekin elkarlanean ipuinak argitaratzea.***

  2019 urtean, 10 elkarteren ipuinak argitaratu dira Irria aldizkarian.

  Apnabi, Agipase, Guztiok, Dravet, Etiopia Utopia, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa, Euskal Herriko Down Sindrome Fundazioa, Ndank Ndank, Dosanbiz.SanFillippo Euskaldi elkarteetako ipuinak hain zuzen ere.

Adibidez, hauxe da *Guztiok elkarteari* buruz egindako ipuina:

- ***Ipuin horiek animazio bihurtzea, aurkezpen tresna erabil ditzaten.*** *(https://bizipoza.eus/ikus-entzunezkoak/)*

2019 urtean 3 elkarteren ikusentzunezko eta jokoak egin dira. Kopiak Bizkaiko ikastetxe guztietara bidali dira eta elkarte bakoitzari ere banatu zaizkio kopiak. Ikusentzunezko hauek Abenduan aurkeztu dira eta Bizipozaren web orrian ere ikusgai daude: Dosanbiz, Adembi eta Naizen elkartearen ikusentzunezkoak.

- ***Elkarteekin ekitaldiak eta emanaldiak antolatzea.***

  2019 urtean Irrien Lagunak-eko pertsonaiak eta Katxiporretako Porrotx-ek elkarteen hainbat ekitaldietan hartu dute parte boluntarioki: Bizipoza jaia, elkarteen jaiak....

- ***Bizipoza jaia.*** *(https://bizipoza.eus/cases/bizipozaren-jaia-2019/)*

  Jaialdi honen helburu nagusiak BIZIPOZA gizarteratzea eta ELKARTEEN lana gizarteratzea izango dira eta jaiaren oinarriak AUZOLANA, ELKARTASUNA, EUSKARA ETA BIZIPOZA baloreak izaten dira.

  2019 urtean Barakaldon burutu da jaia, antolaketa lanetan Aspanovas Elkartea, Kale Dor Kayiko elkartea, Udala eta Bizipoza aritu garelarik lanean eta urriaren 5ean ospatu genuen jaia.

  https://bizipoza.eus/cases/bizipozaren-jaia-2019/ orrialdean aurkitu daitezke aurtengo jaieko argazkiak, bideoak, kartela....

- ***Bolondres sareko gizarte eragile eta norbanako desberdinekin batera ekintza desberdinak aurrera eramatea.***

  Errealeko fundazio egunean, ekainaren 9an, Bizipozako Mindara elkartea protagonista izan da egunean zehar eta komunikabideetan ere.

- 2019 urtean HUHEZIko ikasle batek praktikaldia Bizipoza elkartean burutu du. Praktikaldi honetan, elkarteen ipuinekin burutzen ditugun ikusentzunezkoentzat proposamen didaktiko bat egin du, ikusentzunezkoak ikastetxeetan lantzeko beste tresna bat sortuaz.

- 2019 urtean, MONDRAGON LINGUArekin 2018an hasiera emandako elkarlanarekin jarraitu dugu. Bizipoza elkarteak, Mondragon Lingua eta Bizipozako elkarte bat protagonista izanik jaia antolatu da, hizkuntzarekin batera elkartasuna erdigunean jarriz. Elkarlan hau ere Bizipozako elkarteen errealitatea, egunerokoa eta baloreak trasmititzeko bide egokia izan da. 2019 urtean, Pausoka elkartea izan da elkarte protagonista.

- ***Durangoko azokan Bizipozaren stand-a.***

  2019an Durangoko azokan presente izan da Bizipoza, egunero stand-a bertan izanik. Bizipozako elkarteen materiala eta Bizipozarena berarena izan dira presente egunero.

  Horrez gain, Azokako Areto Nagusian Bizipozaren dokumental eta dokuweb-aren aurkezpena ere burutu genuen.

- ***Dokumentala eta dokuweb-a***

2018 urtean Danobatgroup-ekin batera abiatutako proiektua eta 2019 urtean bukatu dira sortze lanak. 2019 urteko urrian eman genion hasiera dokumental eta dokuweb-aren aurkezpenei hiriburuetan eta eskualdez eskualde.
Proiektu honi buruzko memoria zehatza jasotzen duen "X" dokumentuan aurki daiteke proiektuaren inguruko informazio zehatza.

Dokuweb-a eta dokumentala ondorengo orrian ikusi daitezke:
https://bizipoza.eus/dokumentala/

http://elkarteak.bizipoza.eus/

2.- ELKARTEEN ARTEKO EZAGUTZA ETA KOHESIOA

- ***Prestakuntza saio orokorrak denei begira: komunikazioa nola landu kazetariekin, medikuntzako gaiak....***

  2019 urtean Bizipozako III.Jardunaldia burutu dugu: " BARNE KOMUNIKAZIOA , PARTE-HARTZEA ETA ZAINTZA ELKARTEEN FUNTZIONAMENDUAN"

Jardunaldiaren helburua honakoa izan da: Jardunaldiaren helburu nagusia elkarteetan gertatzen diren harremanak, antolatzeko moduak, elkarteen egonkortasuna eta jarraikotasuna eta abar nolakoak diren aztertzea eta aurrera begira hobekuntzak egitea.
Beraz, elkarte bakoitzak zertarako sortu den, zer premiari erantzun nahi dion, nola antolatzen den, zer egiten duen elkartea ezagutarazteko, nola egiten duen bideragarri, eta abar, ezagutzea eta aberasten aritzea.

Jardunaldi osoa ondorengo helbidean ikusi daiteke:

https://bizipoza.eus/services/bizipoza-jardunaldiak-2019/

3.- BIZIPOZA ELKARTE BERA INDARTZEKO, BAZKIDE BERRIAK ETA BOLUNTARIO SAREA INDARTZEKOAK:

- ***Komunikazioa eta harremanak***

  - Webgunea. 2019 urtean Bizipozaren webgunea berritu dugu webgune argiago eta dinamikoago bat sortuaz. Urrian aurkeztu genuen webgune berria. https://bizipoza.eus/

    Webgunea berritzearekin batera Bizipozaren markenting digital plana osatu dugu Sorland komunikazio agentziarekin batera. Sortutako plan honetan, aurrera begirarako estrategia markatu dugu.

  - Sare sozialak. 2019 urtean sare sozialetan presentzia indartu dugu, Bizipozaren orria atsegin duen komunitatea haundituz. Asteroko lana izan da sare sozialak elikatzearena. (Facebook eta twitter). Sare sozialetan, Bizipozak aurrera eramaten dituen ekimenak gizarteratzeaz gain, Bizipozako elkarteen ekimenak ere zabaltzen dira. Elkarteek ospatzen dituzten nazioarteko egunei ere indarra ematen diegu sare sozialen bidez, elkarte hori, gai hori, balore horiek indartuz.

  - Komunikabideak. Pixkanaka, komunikabideen sarea ere indartuz goaz, urtean zehar komunikabide desberdinekin harremanak landuaz. 2019 urtean lanketa haundia egin da komunikabide desberdinekin, besteak beste, dokumental eta dokuweb-aren aurkezpenaren harira.

    Bizipozaren webgunean aurkitu daitezke komunikabideetako lotura guztiak, ondorengo atalean: https://bizipoza.eus/prentsa/

  - 2019 urtean zehar ere, eragile, kooperatiba, instituzio desberdinekin harremanak izan ditugu Bizipoza proiektua aurkeztuaz.

Bazkidetza eta boluntario kanpainak

- 2019 urtean zehar, Joxe Mari Agirretxe (Porrotx) eta Leire Elizegi (Bizipozako kudeatzailea)-ren artean "Irrigintzatik bizipozara, euskaraz" izena duen solasaldiak burutu da Nafarroako unibertsitate publikoan .

- Urrian, "Bizipoztu zaitez, izan bazkide izan boluntario" boluntarioak erakartzeko kanpaina abiarazi genuen. Aurten dokumental eta dokuweb-aren aurkezpen ekitaldiak baliatu ditugu boluntario kanapaina indartzeko. Kanpaina honi buruzko informazio gehiago aurki daiteke, dokumental eta dokuweb-aren memoriaren dokumentuan.
- Boluntarioen arteko I Topaketa.

  2019 urtean, otsailean lehen aldiz boluntarioen arteko topaketa burutu dugu Donostian. Elkar ezagutzea eta sarearen eraginkortasunaren inguruan hasunartu eta aurrera begirakoak zehaztea izan zen helburua.

4.- BILBOKO EGOITZA

2019 urtean zehar Bilboko egoitzaren aurrera begirako erabilaren inguruko hausnarketak burutu dira Bizipozako talde eragilean eta aurrera begirako proiektua zehazten hasiak gara. Helburua, Bizipozaren material guztiak bilduko dituen gida didaktiko bat sortzea da eta arlo hau Bilboko egoitzatik bideratzea. Honetarako, dirulaguntza eskaerak bideratu ditugu eta horien zain gaude.

5.- DOKUWEB ETA DOKUMENTALA

2018 urtean hasi ginen Danobatgroup-ekin dokumental eta dokuweb proiektua garatzen eta 2019 urtean eman diogu sortze bideari amaiera. Era berean, 2019 urtean Euskal Herri osoan zehar aritu gara proiektuaren zuzeneko aurkezpenak burutzen, “Bizipoztu zaitez, izan bazkide izan boluntario” kanpainarekin batera eta komunikabide eta sare sozialetan ere presentzia indartu dugu.

(Proiektu honi buruzko memoria zehatza eransten dugu memoria honen "1 eranskina. Dokuweb eta dokumentala" dokumentuan.)

6.- BIZIPOZAK 2019 URTEAN JASOTAKO ERREKONOZIMENDUAK

GAITUZSPORT SARIA

GaituzSport Sariek, GaituzSport Fundazioak eta Kirol Egokituaren Euskal Federazioak antolatutakoek, pertsonek eta erakundeek, jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez, gizarte inklusiboagoa, bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko egiten duten lana aitortzen dute.

2019 urtean, besteak beste, Joxe Mari Agirretxe eta Bizipoza elkartea izan ziren sarituak.

ZE BERRI ALDIZKARIAREN TXALO ZAPARRADA

Ze Berri aldizkariak (Euskararen sustapenerako Nafarroako udalarteko aldizkaria), abenduko alean Txalo Zaparrada eskaini zion Bizipoza Elkarteari.
https://bizipoza.eus/ze-berri-aldizkariko-txalo-zaparrada/ loturan aurki daiteke albistea.

ESKERRIK ASKOOOO GUZTIOI, ELKARREKIN ARI GARA GUZTIONTZAT BEHARKO LUKEEN MUNDUA ERAIKITZEN!!!!